

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 586/2019 Erabakia, irailaren 24koa. Onespena ematea Iñaki Guillerna Saenz jauna Demografia Erronkaren zuzendari izendatzeari

Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailaren egitura berrian, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan onartu duen foru dekretu baten bidez, Demografia Erronkaren Zuzendaritza sortzen da.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 eta 40.7 artikuluetan eta uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 9 eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzazko gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailetako diputatuen proposamenak hala eskatuta.

Horregatik guztiagatik, Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Iñaki Guillerna Saenz jauna Demografia Erronkaren zuzendari izendatzea.

Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu 2019ko irailaren 25etik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO